

noaua

Lapurretak Zendoia eta Txapeldun tabernetan

Bertako ekonomia eta enplegua sustatzeko hitzarmena sinatu dute eskualdeko udalek

Igandean herri argazkia, Herritzartu taldeak deituta



Argazkia: Sotia Gaullumak

Huntza, bere onenean

‘Bizi Kalea’ jaialdian arituko dira larunbatean, The Hastelen’s eta Zaparra taldeekin batera

2017ko irteerak

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik
Noaoo Bidaiak *lagunduta*

AEB-KO MENDEBALDEKO kosta

MAIATZA

BALTIKOKO hiriburuetatik kruzeroa

UZTAILA

POLONIA

ABUZTUA

Informazioa eta erreserbak bulegoan.

 **NOAOO BIDAIAK**

Hipodromo Etorbidea, 10 - 20100 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613 | info@nooobidaiak.com
www.nooobidaiak.com



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO, HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H, (edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA


943 36 21 63 (24 orduz)

•BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... •ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzaren 7ra,
TXOTX GARAIA!!

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, EREÑOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867

ATXEGA JAUREGIA



ASTEAN ZEHAR GAUETAN IREKITZEN DUGU! (ASTELEHENAK EZIK)

•Eguneko menua: Kafetegian 13,30€ (BEZ barne)
Jangelan: 17,50€ (BEZ barne) astelehenetik ostiralera eguerdian eta GAUEAN !!!

•Eguneko platera

•Asteburuko menua 31€ (BEZ barne), Karta

Ospakizunak, ezkontzak...leku aproposa eta aukera zabala



Zumartegi poligonoa, USURBIL 943 371 150

Albiste iruditzen

Lapurretak Txapeldun eta Zendoia tabernetan



Zendoian (ezkerretara) leiho zati bat desmuntatu zuten. Txapeldunen (eskubitara) ate ondoko leiho zati bat puskatu ondoren sartu ziren.

Biak egun berean gertatu ziren. Ondoko itxura zutela esnato ziren biak hilaren 27an.

Zendoia tabernaren atariko aulkian duzue, lapurrek desmuntatu zuten leiho pusketa. Plaza batean agertu omen zen.

Leihotik barrura sartu eta txanpon-makinako kaxan zegoen dirua eraman zuten. Salaketa aurkeztu zuten. Goiz hartan bertan Ertzaintza lekua ikuskatzen izan zen.

Apurto zuten leiho puskak, ikusi dezakezen moduan, itxura berria du.

Hala da. Duela hiru bat hilabete edo jarri omen zuten, orduan egin zieten lapurretaren ostean. Bigarren aldiz sartu dira beraz Zendoian, hilabete gutxi-ko tartean. Antzeko moduan sartu ziren baita Txapeldun tabernan. Atearen alboan duten leiho zatia puskatuta.

Laburrean

Santueneko Gure Elkarteko taberna, astebetetz itxita

Berrikuntza lan batzuk tarteko otsailaren 6tik 14ra itxita egongo da, bi egunok barne. Jubilatuen txokoa irekia mantenduko dute bazkideentzat, otsailaren 8, 9, 10 eta 11n, arratsalde, 17:00-20:30 artean.

Helduen Hezkuntza Eskolan matrikulazio garaia da

Matrikulazio epeak zabalik jarraitzen du Lasarte-Usurbilgo EPA Helduen Hezkuntza Eskolan. Ofiziala eta doakoa da. Izena emateko: 943 36 66 08 / 943 37 64 43 / www.epalasperte.eus

Aginaga Sagardotegiaren 25. urtemugako afaria

Ostiral honetan ospatuko du, otsailak 3. Afalostea trikitilarietako girotuko dute, tartean Jon Ostolazak. Sagardotegiarekin harremanetan jartzeko: 943 36 67 10 // 943 37 06 68/info@aginagasagardotegia.com

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Imanol Ubeda

Besteenak eta norberarenak

Adostasun zabalarekin hasiko da lanean memoria eta bizikidetzari buruzko lantaldea Eusko Legebiltzarrean. Hala zioen ostiraleko prentsak. Tira, eguna alaitzeko moduko albistea.

Lan taldea osatzearen alde bozkatu zuten EAJ-PNV, PSE-EE, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek. PP izan zen lan taldea osatzearen aurka bozkatu zuen bakarra.

Adostutako testuaren arabera, legebiltzarreko talde politikoen zeregina hau izango da: “adostasun zabalak lortzen saiatzea memoriari eta bizikidetzari eragiten dioten hainbat gairen inguruan”.

Jorratuko dituzten gaiak ere zehaztu dituzte: “memoria, bizikidetzak, biktimak, terrorismoari eta indarkeriari zilegitasuna kentzea, espetxe politika, askatasuna, bakea eta giza eskubideak”, akordioaren alde sinatu zuten alderdiek aditzera eman dutenez.

Azken urteotan gauzak nola joan diren ikusita, abiapuntu egokia dirudi. Urrats asko eman beharko dira oraindik.

Hau hasi baino ez da egin, eta seguru desadostasun bat baino gehiago sortuko dela bidean. Pentsa, oraindik badira aitorpenik gabeko biktimak. Eta denek ez dute indarkeria berdin interpretatzen.

“Euskal kasuan izandako bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen argazkiak, herriz herri” txostena nire eskuetara iritsi zenean atera nuen ondorio hori.

Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaritzak 2016ko azaroan egina, “Oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko” udalei eskaini zaien agiri informatiboa da.

Txosten horretan ageri da Joxe Martin Sagardia Zaldua “Usurbil”, 1980ko abenduan Batallón Vasco Español talde parapolizialak Miarrizten eraila. Baina txosten horretan ez dira Joxe Luis Segurola Maioz “Nazkas” aginagarra eta Jabier San Martin “Piti” agertzen. 1983ko udan hil ziren biak, auto barruan zaramaten lehergailu batek eztanda egin ondoren.

1990eko udan, egoera bertsuan hil zen Joxe Mari Aran-

tzazistroke Maioz “Arrantzale” usurbildar gaztea. Bera ere ez da txostenean ageri.

Hau da argudioa: “Ez dira sartu Udal Erretratu hauetan nazioarteko zuzenbidearen estandar horien arabera bizitzeko eskubidearen urraketatzat hartu ezin daitezkeen kasuak, gertatutako unean zegoen indarkeria testuinguruarekin lotura zuzena izanik ere. Hor sartzen dira suizidioak, istripuak, indarkeriazko ekintza batean gertatutako heriotzak, polizia-kidegoen artean egindako ustekabeko tiroak...”.

Memoriaz eta biktimez hitz egiterakoan, korapilo hau asmatzen asmatuko al dute.

Ez nuke pulpitutik ari den predikatzailereana egin nahi. Besteek kontu eske arituz, norberarenak isilduz. Txosten horretan ezezagunak zitzaizkidan hiru kasu ere ageri baitira. Ni NOAUA!n ari naizenetik, sekula hizpide izan ez ditugun hiru kasu:

Francisco Exposito Camio. Taxilaria, Usurbilgo tren geltoki ondoan hil zuten 1975eko udan, bere autoan zegoela. Esku-paperak bota zituzten

gero herrian, ETaren izenean, Guardia Zibilaren salataria zela leporatuz.

Amancio Barreiro Gens. Donostiarra, hau ere taxilaria, baina Trintxerpen aritzen zen lanean. 1978ko irailean, hilda azaldu zen Aginagan, telefono-dei batek gorpua zegoen lekuaren berri eman ondoren. Eusko Jaurlaritzaren txostenaren arabera, Iparragirre Komando Autonomoak (CCAA) hil zuen.

Jose Maria Latiegi Balmaseda. 1981eko apirilean hil zuten. Anbulantzian hil zen, ospitalera zeramatela, Usurbilgo Moulinex enpresan lan egitetik ateratzen ari zela lokian tiro bat jasota. Moulinex-eko produkzio-burua zen. Komando Autonomo Antikapitalistak (CCAA) hartu zuten hilketa bere gain.

Uste dut gai honetan ardurarik ere badugula bateko zein besteko hedabideetan ari garenok. Kasu denei erreparatzen ez badiegu, nekez irudikatu dezakegu gatazkarren erretratu fidel bat, nekez eskaini dezakegu lekukotza osatu bat.

Aritz Gorriti | **Imanol Ubeda** | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Garazi Lizaso Manterola

Nafartarrak taldekoen eskertza

Sohutako (Zuberoa) Eperria ikastola laguntzeko Nafartarrak taldeak eginiko deialdiari beste behin, elkartasun eta eskuzabaltasun handiz erantzun diete usurbildarrek.

8.852 euro batu dira

Zuberoan ekoiztutako produktudun otarrak salduz, 8.852 euro bildu ziren Usurbilen. Lerrootatik Nafartarrak taldeak eskerrak helarazi nahi dizkiete, elkartasun ekimen honetan parte hartu duten guztiei.



Zuberoan ekoiztutako produktudun otarrak salduz, 8.852 euro bildu zituzten.

Gutxieneko zerbitzuak Euskotrenen

Lan uzte gehiago iragarri dituzte Amara eta Arasoko makinariak. Gutxieneko zerbitzuak izango dira otsailaren 3an, 21ean eta 23an, 6:55-9:05 eta 17:55-20:05 artean, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia arteko lineetan. Gainerako orduetan ohiko zerbitzua eskainiko da. Informazio gehiago: euskotren.eus
Telefono zenbakia: 902 543 210
Twitter: @euskotrenEJGV

Beterri Buruntzan sustapen ekonomikoa eta enplegua sustatzeko hitzarmena

Garapen agentziarik ez duen Gipuzkoako eskualde bakarra da gurea, Beterri Buruntza. Aurrera begira egitasmo honi lotutako urratsak ematera konprometitu ziren hilaren 27an eskualdeko sei udalerrietako alkateak: Xabier Arregi (Usurbilgo Udala), Zorione Etxezarraga (Astigarragako Udala), Luis Intxauspe (Hernaniko Udala), Ana Karrere (Andoaingo Udala), Jesus Zaballos (Lasarte-Oriako Udala) eta Mikel Pagola (Urnietako Udala).



Hitzarmen ekitaldian, eskualdeko alkate guztiak hartu zuten parte: Xabier Arregi (Usurbilgo Udala), Zorione Etxezarraga (Astigarragako Udala), Luis Intxauspe (Hernaniko Udala), Ana Karrere (Andoaingo Udala), Jesus Zaballos (Lasarte-Oriako Udala) eta Mikel Pagola (Urnietako Udala).

Beterri-Buruntzaren eskualdearen garapena, sustapen ekonomikoa eta enpleguaren alorreko zerbitzuak elkarlanean eskaintzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten Andoaingo Udaleko udalbatza aretoan.

Garapen agentzia, bidean

Honax lankidetzaren hitzarmen berri honen gako nagusiak:

- Erroka: eremu honetan udal bakoitzak dituen baliabideak hobeto aprobetxatzea eta eskualdeko herritar eta enpresei zerbitzu bateratua eta hobea eskaintzea.

- Arlo sozioekonomikoarekin

HITZARMENEAN JASOA

“Tokiko enplegu planak, ekintzaileentzako zein enpresentzako zerbitzuak eta sektoreetako foroak elkarlanean jarriko dituzte. 1.290.976 euro bideratuko dituzte”

loturiko politikak eta jardunak modu koordinatuan eskaintzea herritar, ekintzaile eta enpresei.

- Eremu honetako zerbitzuak ez dira bikoiztuko.

- Baliabide publikoak era-

ginkorrako kudeatuko dira; lokalak eta eraikinak partekatu, eta zerbitzu eta langileen kontratazioa zentralizatu ahaliko da.

- Tokiko enplegu planak, ekintzaileentzako eta enpresentzako zerbitzuak eta sektoreetako foroak elkarlanean jarriko dituzte abian sei udal-txeok.

- Ordezkaritza politikoez osaturiko Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da. Udalbatza bakoitzak bina ordezkaritza izendatuko ditu. Honez gain, koordinazio tekniko eta administratiborako batzorde bana ere eratuko dituzte.

- Egitasmoak sei udalen urteroko ekarpenek finantzatu dituzte. Udal bakoitzaren ekarpena, Foru Aldunditik jasotako foru-funtsaren arabera izango da.

- 1.290.976 euro bideratuko dituzte sei udalok, eremu honetako egitasmoetara.

- Lau urteko iraupena izango du hitzarmenak, baina lehenago eten daiteke, baldin eta “sei udalek eskualdeko Garapen Agentzia edo beste mota bateko erakunde eratzeko erabakitzen badute”. Kasu honetan, erakunde berri honek bereganatuko ditu programak, proiektuak eta zerbitzuak.

Udaletxeen arteko elkarlana erraztuko duen hitzarmena

Usurbilgo Udal gobernu taldearen ustez, “lankidetzaren hitzarmen honek onura handiak ekarriko dizkie eskualdeko ekintzaileei, enpresei eta, oro har, herritarrei”.

Aurretik, zenbait egitasmo elkarlanean landu dituzte eskualdeko udal gobernu talde desberdinek. Urrats berri ho-

nek jardun hau erraztu eta areagotuko duela dio EHBilduk. Honez gain, etorkizunean garapen agentzia izateko lanean segiko dutela adierazi dute. Lehenetsuneko gaia baita Usurbilgo EHBildurentzat.

“Eskualdea bidezkoagoa izan dadin”

Aurreko legegintzaldian hasi ziren lanketan, elkarlana sus-

patzen. “Indar handia jarri dugu eskualdea osatzen dugun udalen arteko elkarlana bultzatzen eta marko juridiko bat sortzen. Gure eskualdearen garapenak ekonomia eraldatzailearen printzipioetan oinarrituta egon behar duela oso garbi daukagu”, diote EHBildutik. Eskualdean ekonomia sozial, solidario eta eraldatzailearen printzipioen arabera

garapena sustatu nahi dutela azpimarratzen dute. “Toki garapen ekonomikoa eta sozialak kooperatibismoan, jasangarritasunean eta parte-hartzean oinarrituta egon behar dutela ulertzen dugu. Lankidetzaren hitzarmen hau bultzatu dugu gure eskualdea bidezkoagoa, iraunkorragoa eta parekideagoa lortzeko tresna izan dadin”, adierazi dute.

Txaldataxurreko gudaren arrastoak azaleratzen

Islada Ezkutatuak, Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldea urteotan egiten ari den lan itzelaren lekuko zuzenak izan ginen urtarrilaren 28an. Hedabideak edota erakundeetako ordezkariak bildu zituzten Zubieta gainean, Txaldataxurren.

Duela hiru aste, taldeak Lasarte-Orian egin zuen agerraldian, inguru honetan egindako gerra garaiko azken aurkikuntzak aurkeztu zituzten; larruzko funda bat gorputzari lotzekoarekin eta guzti, marka ezagun bateko metxeroa, Ingalaterran ekoizitako txilibitua, garai hartako pistola bat eta proiektilak aurkitu zituzten... Baita ustez gorpuzkiak izan zitezkeenak ere. Gorpuzkiok aurkitu bezain laster, lanak eten eta honen berri eman zieten Lasarte-Oriako Udalarari eta Foru Aldundiari. Aranzaditik ere dei bat jaso zuten, gorpuzkinak altxatzera joango zirela iragarritz.

Instituzioetako ordezkari ugari Larunbat goizean bildu ziren guztiak Txaldataxurren; Usurbil, Donostia eta Lasarte-Oriako udal ordezkariak, Xabier Arregi eta Eneko Goia alkateak tartean; Maribel Vaquero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendaria edota Aintzane Ezenarro, Eusko Jaurlaritzako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren zuzendaria. Goiz osoa eman zuten Islada Ezkutatuak taldekoekin batera, Paco Etxeberria



Islada Ezkutatuak taldeak urteak daramatza, lekukoak eta gerra garaiko informazioa biltzeaz gain, larunbat goizero Txaldataxurrera igotzen.

AZKEN AURKIKUNTZA

“36ko gerrako soldadu batenak izan daitezkeen gorpuzkiak desobiratu zituzten aurreko larunbatean”

buru zuen Aranzadi zientzia elkarteko ordezkariak batek, Txaldataxurreko lur azpiak ezkututzen duena azaleratzen. Islada Ezkutatuak taldeak, urteak daramatza, lekukoak eta gerra garaiko informazioa biltzeaz gain, larunbat goizero Txaldataxurrera igotzen.

Soldadu baten gorpuzkinak desobiratu zituzten

Haiei esker dakigu pixkanaka azaleratzen ari diren 1936an Txaldataxurren jazotakoaren berri. Gerra hartako soldadu

batenak izan daitezkeen gorpuzkiak desobiratu zituzten aurreko larunbatean. Azken aldian egin dituzten aurkikun-

tzen inguruko zehaztasunen berri eman zien Islada Ezkutatuak taldeak, Txaldataxurren bildutakoei.

Xabier Arregi: “Islada Ezkutatuak egin duen lana eskertzekoa da, benetan”

“Oso gertu bizi gara hemen-dik eta guretzat paraje honek balore handia du. Gu hemen, mendi hauetan asko ibilitakoak gara. Egun batetik bestera gure gurasoei entzun izan diegu hemen bazela halako borroka gune bat. Nik uste lozorro horretatik edo iragan ezkutu horretatik, talde honek, Islada Ezkutatuak egin duen lana benetan eskertzekoa da. Es-

kertzen dizuet, elkartzea, antolatzea, lan honi ekitea, lana hain serio egitea, eta guretzat, hemen inguruan bizi garenontzat Txaldataxurrek hartu du lehen ez zuen balorea. Animo lan honetan, ez etsi, jarraitu gogor eta ia lortzen dugun halako batean, hemen ezkutatu dagoen informazio eta aberastasun hori guztia azaleratzea”.

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

“Gizarte osoak du betebeharrak eta konpromiso bat”

Larunbatean instituzioetako ordezkari ugari batu ziren Txaldataxurren: Usurbil, Lasarte-Oria eta Donostiako udal ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzak eta Giza Eskubi-deen zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubi-deen Institutuaren zuzendaria da.

Aintzane Ezenarrok Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa hartu zuen parte: “Euskal gizarte osoak dugu betebeharrak eta konpromiso bat, baita Eusko Jaurlaritzak ere, askatasuna eta demokraziaren alde borrokatu zutenen memoria demokratikoa behar duen lekuan gordetze-ko”, adierazi zuen Txaldataxur



Irudian dira Xabier Arregi, Aintzane Ezenarro, Eneko Goia eta hainbat kazetari.

gainean. “Gaurko jarduera hau beste urrats bat da, ahazturatik memoriara ekartzeko eta dagokien duintasuna be-

rreskuratzeko. Aurrera begira ere bideak hau izan behar du, azken batean helburu berdina dugulako, pertsona hauei be-

raien duintasuna bueltatzea, eta Euskal Herriko memoria demokratikoan zor zaien lekua eta merezimendua ematea”.

Eneko Goia: “Garrantzitsua da gure hiritarren duintasuna berreskuratzeko”

“Garrantzitsua, gure historia eta iragana ezagutzeko eta gure hiritarren duintasuna berreskuratzeko. Herri bezala egin behar dugun lana da. Erakundeetako ordezkariatzat gure obligazioa da hemen egotea. Gure konpromisoa adieraztea, memoria berreskuratzeari eta gure hiritarren duintasuna berreskuratzeari alde. Hau da horren adierazleetako bat. Eskertu hau dena posible egiten duzenon parte hartzea, lanean jarduten zaren pertsona, erakunde,



Paco Etxeberria bertaratu zen Txaldataxurreko eremura.

elkarteen lana. Lan bikaina egiten duzue. Konpromiso handia erakusten duzue. Harro egoteko moduko lana egiten duzue eta hori eskertu egin nahi dut”.

Maribel Vaquero: “Historia txiki horiek osatzen dute gure memoria”

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzak eta Giza Eskubi-deen zuzendaria da Maribel Vaquero. Larunbatean, balazio hau egin zuen Txaldataxurren: “Konturatzen gara hemen pertsona hauen guztien gaitetik, istorio pertsonal, sentimendu asko dagoela eta oso garrantzitsua da hori azaleratzea, azkenean historia txiki horiek guztiak egiten dute gure memoria. Oso garrantzitsua da duintasun eta historia hori islatzea. Oso lan ona egiten ari zarete Aranzadi eta memo-



Islada Ezkutatuak eta Aranzadi elkartekoak aritu ziren indusketa lanetan.

ria azaleratzeko lanean dabilen jende guztia”.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Otsailaren 19an, manifestazioa Donostian

EAEko Auzitegi Nagusiak GuraSOsek uztailaren 5ean parte hartze prozesua zabaltzea eskatzeko helegite bat alboratu zuela jakin zen astelehen goizean. Berehala, premiazko agerraldia deitu zuten Donostian epai hau baloratzeko. Urtarrilaren 30ekoa ez, “hurrengo ebazpenak dira, erraustegiaren lizitazioaz erabakiko dutenak”, zehaztu du GuraSOS taldeak.

Halare gogorarazi zuten, “hondakinen kudeaketan azken hitza ez dute izango auzitegiek. Gizartea izango da erabakiko duena”. Horregatik manifestazioa deitu du otsailaren 19rako (igandea) eguerdiko 12:00etan. Donostiako Artzai Onaren paretik abiatu eta Alderdi Ederren amaituko da.

Orain arteko mobilizazio masiboena izatea nahi du. Irtenbideak, akordioan, legearen errespetuan eta parte hartze demokratikoan oinarritu behar duela uste duten herritar guztiak deitzen dituzte manifestatzaera. Baita gatazka, inposizioa eta herritarrei hitza ukatzea, hondakinen kudeaketarekin dugun arazoa konpontzeko bidea ez dela uste dutenak ere. “Gizartearen ordua da, kalera irteteko ordua eta erabakitzea”, oroitarazi du guraso taldeak.

“Ez dute legedia beteko, erraustegiko lanak amaitu arte”

Ekimen juridiko berria iragarri dute gainera, azkena. Astearte honetan, errekursoa aurkeztekoa zen GuraSOS, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017rako foru aurrekontuen araudiko zortzigarren xedapen gehigarriaren aurka. Xedapen honek 2002-2016 urte artean izan dugun Gipuzkoako Hiri Hondakinen Plan Orokorren



Irtenbideak akordioan, legearen errespetuan eta parte hartze demokratikoan oinarritu behar duela uste duten herritar guztiak deitu dituzte manifestaziora.

GURASOS

“Hondakinen kudeaketan azken hitza ez dute izango auzitegiek. Gizartea izango da erabakiko duena”. Horregatik manifestazioa deitu du otsailaren 19rako (igandea) eguerdiko 12:00etan. Donostiako Artzai Onaren paretik abiatu eta Alderdi Ederren amaituko da

(GHHKPO) indarraldia luzatzea ahalbidetzen du, bertan aurreikusiak dauden azpiegiturak egikaritu artean behintzat.

GuraSOSetik gogorarazi dutenez, Aldundiak bazekien erraustegiaren lanen kontratazioa justifikazio legalik gabe geratuko zela, eta aipatu planaren “indarraldia luzatzea erabaki dute, aurrekontuetako xedapen gehigarri baten bidez. Aurreikuspen hau, tramitaziorik eta legediak derrigortzen duen parte hartze prozesurik gabe egin da, aurreko plana ebaluatu gabe (Legediak derrigortzen duen arren), egungo hondakinen egoera aztertu gabe (2007az geroztik ez da aztertu)”.

Hondakinen plan honek

dagoeneko errebisatua behar zuen GuraSOSen esanetan. Baina aipatu xedapen gehigarri horren arabera, beste hiru urte gutxienez igaro daitezke errebisio hau gauzatu arte. “Argiago ezin dute hitz egin. Ez dute legedia beteko erraustegiko lanak amaitu arte”, diote guraso taldek.

Halere ez dute uste, Aldundiak ebatzteke dauden gainerrako ekimen juridikoei itxaron gabe, aurrerantz jarraituko duenik eta auzitegiek halakorik onartuko dutenik. Horregatik ziur dira, ez dituztela erraustegiko eraikitze lanak abiatuko.

Aldundia, lizitazioa sinatu nahian

Oraindik ebatzteke dauden errekursoen epaiei itxaron gabe, asteartean bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile Imanol Lasak foru gobernuaren asteroko bileraren ostean aurreratu zuenez, egunotan sinatzekoak dira erraustegiaren lizitazioa. Lasak zioenez, lizitazioarekin aurrerantz jarraitu asmo dute, epaileak kasu guztietan arrazoi ematen ari zaielako. Esleipena sinatzeko tramite burokratiko batzuk baino ez omen zaizkie falta.

Larunbat honetan manifestazioa

Hondarribian

Mobilizazioa Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta Txingudi Bizirik plataformako kideek antolatu dute otsailaren 4an Hondarribian. 12:30etan abiatuko da Butroe pasealekutik (Muela), “Erraustekarik ez Txingudin ez Zubietan” aldarripean.

Bertara joateko, autobusa antolatu da Usurbilen

Hara joateko autobus zerbitzua antolatu du Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak, 11:30etan Oiardo Kiroldegi ataritik. Itzulera, manifestazioa bukatu eta berehala, 13:30-14:00 inguruan. Autobus zerbitzu honetan izena aurrez eman beharko da, Txiriboga eta Aitzaga tabernetan.

“Elkar lagundu behar dugu”

Manifestazio honen bidez, Txingudiko erraustegia atzera bota zen bezala, Zubietakoa ere atzera botatzeko presioa egin nahi dute Gipuzkoako agintarien aurrean. Horregatik erraustegiaren nahiz zabortegiaren aurka borrokatu diren gipuzkoarrei bertaratzera deitzen diete. “Borroka berdinean gaudete eta elkar lagundu behar dugu”, diote deitzaileek. Irungo eta Hondarribiako udalei ere gaikako bilketan berehala pauso eraginkorrek ematea eskatuko zaie.



Autobusa antolatu da. 11:30ean abiatuko da kiroldegitik.



Garazi Artola

Usurbil.
Ingeniaritza Biomedikoa,
4. maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ARRASATE · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BILBAO · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

OÑATI · OTSAILAK 11
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

ARETXABALETA · OTSAILAK 4
LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

DONOSTIA · OTSAILAK 9
OSTEGUNA, 18:30 / Auditorium

ETORRIKO
ZARELA
JAKINARAZI!

“Sagardoren atzean historia eta kultura daude,

Tokikom euskarazko tokiko hedabideen federazioak, NOAUA!rekin eta eskualdeko tokiko hedabideekin elkarlanean, “Ekonomia gurean” solasaldia antolatu zuen Andoainen. Hizlarien artean zen Arantxa Eguzkiza, Sagardogileen Elkarteko lehendakari izandakoa. Jasangarritasuna, nazioartekotzea, globalizazioa... Galdera potoloiei zuzen eta zorrotz erantzun zien. Bertakoak duen garrantziaren defentsa sutua egin zuen: “Sagardoaren atzetik sagarra eta sagastia daude. Sagastia edukitzeak ingurugiroa zaintzen eta baserria zutik mantentzen laguntzen du. Ezjakintasun handia dagoela uste dut. Edariaren atzean historia eta kultura daude. Oraindik ez gara erabat kontziente horretaz guztiaz”, adieraziz.

Sagardogintzaren erdigunea Beterri-Buruntzan dagoela gogora ekarri zuen mahai-inguruan egin zuen lehen agerraldian: “Buruz egin dut kalkulua, eta gutxi gora-behera Euskal Herrian 70-75 sagardotegi daude, horietatik 40 eskualdean. Zenbakian ez ezik, ekoizpenean portzentaia askoz altuagoa da. Txotxak 800.000 pertsona mugitzen ditu urte osoa hartuta, zeren eta geroz eta gehiago dira maiatzetik aurrera asteburuetan irekitzen hasi direnak. Mugimendu handia dago”.

“Asko inbertitzen duen sektorea da gurea”

Tradizioa eta berrikuntza, elkarri talka egin gabe, elkarren ondoan bizi dira sagardotegietan. Hasiera batean kontraesankorra dirudien arren, beste ekonomia jardueretatik bereizten dituen horixe da: tradizioaren eta berrikuntzaren uztarketa. “Baserritarrak gara gehienok, baserritik datorren



“Euskal Herrian 70-75 sagardotegi daude, horietatik 40 eskualde honetan ditugu”, Arantxa Eguzkizak emandako datua da hori. Abenduan, Tokikom-eko hedabideok Andoainen antolatu genuen hitzaldian hartu zuen aparte.

ARANTXA EGUZKIZA

“Austriatik etorri berria naiz eta han ingurua oso garbi dago, baina terreneak garbi edukitzeagatik lurjabeek ordaindu egiten diete han”

tradizioa da gurea. Etxea igeltseroz eta linterneroz beteta daukagu, obratan gaudelako. Asko inbertitzen duen sektorea da gurea. Eta inbertsio handiak eskatzen ditu, egiturazkoak. Etengabe berritzen joan behar dugu, oso sektore bizia gara. Hortxe nahasten dira berrikuntza eta tradizioa. Bi izakera horiek, kontraesankorrak diruditenak gure baitan daude eta beti gaude mugimenduan”,

argitzearekin batera, sagardoa gure herriari lotuta dagoen edaria dela gaineratu zuen, Erromatarren garaian dagoeneko aipatzen zutena. “Haienezat mendi artean bizi zen herrialde bat ginen, zeinean sagar ardo bat edaten zela aipatzen zuten. Bi mila urte eta oraindik bizirik jarraitzen badugu, eta etorkizunera begira jarrita bagaude, horrek belaunaldiz belaunaldi egokitzen jakin izan dugula erakusten du”.

Jasangarritasuna

Bertako sagarrarekin sagardoa egitean, euskal kultura, nortasuna eta ingurugiroaren aldeko apustua egitea defendatzen ari diren iritzikoa da Arantxa Eguzkiza. “Gure sagastiekin ekoiztean lursail horiek ez

daude zikin. Gaur egun baserri bat mantentzea ia luxua da, baserritarra naiz eta jakin badakit baserri bat mantentzeak zein kostu duen edota lursailak garbi mantentzeak zenbat lan ematen duten”. Egun, lursailak txukun mantentzeagatik baserritarrei dirua eman beharko litzaieke, bere ustez. “Austriatik etorri berria naiz eta han ingurua oso garbi dago, baina terreneak garbi edukitzeagatik lurjabeek ordaindu egiten diete han. Garestia da lurak garbi mantentzea, eta esplotatzea zer esanik ez. Eusko Labelarekin eta jatorri izendapenarekin, bertako sagarra bultzatzen ari gara eta horrekin inguruko terreneo eta ekonomia bermatzen lagunduko dugu”.

Nazioartekotzea

Une honetan Amerikako Estatu Batuetako iparraldean sagardoa oso modan dagoela jakinarazi zuen eta laguntzak ematen ari direla, gainera, sagastia berreskuratzeko. “Beste sagardo mota bat da hangoa. Sagardoa munduko toki askotan egiten da, baina hemen ezagutzen dugun sagardo naturalik ez. Modan dago bai, baina oso zaila da hara iristea. Gure ekoizleentako batzuk zerbait saltzen ari dira 6-8 urteko lanaren ondoren. Baina oso konplexua da. Hemengo ekoizle handiena ere mundu zabaleko erakuslehoan txikia da. Gure sektorea txikia baita”.



“Sagardoa munduko toki askotan egiten da, baina hemen ezagutzen dugun sagardo naturalik ez”.

oraindik ez gara erabat kontziente”

“Geurea defendatu behar dugu”

Boterea erosleak dauka eta, jakina, denok gara erosleak. “Zerbait erostera joaten garenean eta Txinatik datorren –ziurrenik esplotazio baten ondoren– gauzaren bat merke erosten dugunean, txoltoa dei ieaziozue, denboraren poderioz gure lanpostuen eta herriaren aurka doala konturatu behar dugu. Horretaz jabetzen ez garen bitartean jai dugu. Batak bestearekin bizi behar duela ohartu behar dugu, eta denok besteen mende gaudela. Denok eman behar diogu jatekoa ondokoari”, adierazi zuen Andoaingo mahai-inguruan. Euren sagardotegian (Iparragirre, Hernani) sagasti ekologikoa izateaz gain, bertako produktuekin osatutako menua eskaintzen dute. “Bakailaoa Norvegiatik ekarri behar izaten dugu, baina beste guztia hemengoa da. Eusko Label bertako haragia txertatu dugu gure menuan. Arraultzak ere bertakoak erabiltzen ditugu... Noski, horrek guztiak kostu handiagoa du”.

“Oso onak gara lanean, eta horri balioa eman behar diogu”

Lehiakor izatea erraza ez bada ere, koherentziaz jokatzeko ahalgintzen direla gaineratu zuen. “Ez bakarrik koherentziaz eta dirua bertan uzten dugulako, baizik eta Euskal Herrian kalitatea ona delako. Oso onak gara lanean, oso onak gauzak egiten eta horri balioa eman behar diogu. Zer arraio gabiltza kanpoan kaka erosten? Barkaidazue horrela hitz egitea, baina, azken batean, horren ondorioz gauzak erortzen ari direla ikusten ari gara. Gurea defendatu behar dugu”.

Sagardoa oso produktu ona



Txotx garaiak 800.000 pertsona mugitzen ditu urte osoan, “zeren eta geroz eta gehiago dira maiatzetik aurrera asteburuetan irekitzen hasi direnak”. Argazkiaren erdian da Arantxa Eguzkiza. Ondoaan ditu Eneko Goia eta Denis Itxaso. Argazkiaren ezkerretara, Urdaira eta Saizar sagardotegiko ordezkariak ageri dira.

ARANTXA EGUZKIZA

Jatorri izendapena eskuratu eta gero, “ahal den neurrian, gure Euskal Herria sagastiz betetzea da erronka”

delako kanpora joan nahiko luke saltzera, “baina kontuz

ea kanpoan zein sagardo saldu behar dugun. Zeren eta edozein sagarrekin egiten badugu, guk egiten dugun sagardo horren teknika ikasi eta Txinan egin dezakete, adibidez. Eta Txina da munduan sagardo gehien dagoen toki. Horregatik da hain garrantzitsua identitate propioari eustea”.

Etorrizunerako erronka

Sagardoa saltzera kanpora atera beharra zaila dela uste du eta erronka, jatorri izendapena eskuratzeko dela, “bertakoa indartzea eta ahal den neurrian gure Euskal Herria sagastiz betetzea. Turismoa ere landu beharko genuke, bisitan datorenari zein lan egiten dugun azalduz”.

“Elkarlanean sinesten dut”

Sagardotegi sektorean nagusiki negozioak familiartekoak dira eta ikerkuntzan, esaterako, behar handia dagoela adierazi zuen. “Norberak ezin du planteatu bere kabuz inbertitzen hastea. Inguruan inbestigaziorako gaitasuna duten enpresa, ikastetxe, Fraisoro edo Azti badiugu, elkarlan hori sendotu egin behar da eta batak bestea lagundu. Elkarlanean sinesten dut. Gipuzkoako sagardogile elkartearen bagabiltza elkarlan hori sustatu nahian”.



Usurbil, Astigarraga eta Hernaniko udalek sagardoaren kultura sustatzeko konpromisoa hartua dute. Arantxa Eguzkizak adierazi digunez, “Gipuzkoako sagardogileen elkartearen ere bagabiltza elkarlan hori sustatu nahian”.



Irisasi BTT
309
SEIZAR

304

SURBIL

urdo bike

orkli

SEASAIN

KALDA

LAS

SICK

urdo bike

BI BTT

ABBE

BTT



Klik! batean

Kaskoa buruan, ibili munduan

Epeletik joan zen Irisasi BTT Hotzak Akabatzen lasterketa.
Beste behin ere, koloretsua izan zen tropela.

Argazkia: Ion Markel

“Sustoa gainera kendu ezinda gaude”

HUNTZA TALDEKOAK ‘ALDAPAN GORA’ ABESTERA ETORRIKO DIRA LARUNBATEAN

U ne honetan, puri-purian da ‘Aldapan gora’ abestia. Bideoklipak ia 800.000 jaso ditu bi hilabeteko epean. Pentsa. Huntza taldekoak zur eta lur daude kantua izan duen oihartzunarekin. Halaxe adierazi digu Aitor Huizik, Huntza taldeko biolin joleak. Larunbat honetan Usurbilen joko dute, Hurbilagok antolatutako jaialdian.



Larunbatean, Huntza taldekoak ‘Bizi kalea’ jaialdian hartuko dute parte. The Hastelen’s eta Zaparrarekin batera arituko dira frontoian.

NOAUA! Ikasleak zarete denak, ezta?

Aitor Huizi, Huntza-ko kidea. Bai, unibertsitatean gaude denak.

Garai honetan, azterketetan egongo zarete burubelarri.

H. Nik aurreko astean amaitu nituen baina beste taldekide guztiak azterketetan daude egunotan.

Atzera egingo dugu. Duela urtebete, inork gutxi ezagutzen

AITOR HUIZI (HUNTZA)

“Aldapan gora kantua plazaratu genuen udazkenean eta bapatean jende askorengana iritsi zen. Hilabete hauek guztiak errotzekoak izan dira”

zuen Huntza taldea, ezta?

H. Unibertsitate giroan ezagutu genuen elkar. Batek trikitixa jotzen zuen, besteak gitarra,

nik biolina jotzen dut... Tarteka hasi ginen elkartzen, gustuko musika egiteko. Beti ere, modu lasaian. Helburua zen pixkanaka gure kantu propioak sortzen joatea, eta erromeria moduko emanaldiak eskaintzea. Baina lagun giroan beti ere.

Oso denbora laburrean, oso ezagun egin zarete.

H. ‘Aldapan gora’ kantua plazaratu genuen udazkenean eta bapatean jende askorengana iritsi zen. Hilabete hauek guz-

tiak errotzekoak izan dira. Esperientzia oso potentia izaten ari da, baina oso positiboa ere bai.

Esan daiteke behetik gora lehortu dela abestia. Jendeak egin zuela arrakastatsu abestia, eta ondoren hasi zirela hedabide handiak zuetaz hizeketan.

H. Kantua irratian hasi zen bere bidea egiten. Handik gutxira, Youtube-ra igo genuen kantua bideoklip-a eta hortik hasi zen zabaltzen eta zabaltzen.

Mugak gainditu dituela esan daiteke.

H. Atzerritik ere idazten digute. Espainia aldetik, eta baita beste herrialde batzuetatik ere. Sare sozialetan edonork dauka idaztea, eta Kataluniatik jende asko idatzi digu, baita Madrildik eta Andaluziatik ere. Baina Hego Amerikatik ere iritsi zaizkigu mezuak. Harrituta gaude sare sozialek zenbaterainoko zabalkundea izan dezaketean.

Usurbilgo Higain estudioan grabatu zuten diskoa

NOAUA! Usurbilen grabatu zenuten diskoa. Zein garaitan izan zineten hemen lanean?

Aitor Huizi, Huntza-ko kidea. Abuztuko azken astean eta iraileko lehenengo astean izan ginen Higain estudioan.

Zuen lehen diskoa da hau. Nolakoa esperientzia izan da?

H. Guretzako moduko grabazio bat egitea zen asmoa. Inguruan zabaltzeko. Horretan genbiltzala, Mauka argitaletxe-koek deitu ziguten Haritz Harreguyk bazuela bere estudioan tarte bat egiteko aukera.

Kristoren aukera iruditu zitzaigun eta aurrera egin genuen. Abuztuaren amaieran



Huntzakoak, Higain estudioan. “Asko ikasi genuen Haritz Harreguyrekin”.

izan ginen Higain estudioan, eta gauza asko ikasi genituen Haritzekin.

Esperientzia handiko teknika-ria da Haritz.

H. Hori da. Asko daki, jende

askorekin grabatu du. Guretzat dena berria zen eta Haritzek asko lagundu digu. Oso gustura egon ginen berarekin lanean.

“Usurbilera jaisten ginen egunero bazkaltzera”

Beraz, Usurbilgo San Esteban inguruan ibiliko zineten bitzez.

H. Hala da. Goizean estudioa igotzen ginen, eta eguerdian Usurbilera jaisten ginen bazkaltzera. Oso ondo pasa genuen egun haietan. Oso atsegina izan zen garai hura. Ederki ibili ginen denak.

“Erromeria giroko bertsioekin osatzen dugu errepertorioa”

NOAUA! Eta diskoa plazaratzearekin batera, ‘Aldapan gora’ fenomenoaren piztu zen. Horrelakorik espero al zenuten?

Aitor Huizi, Huntza-ko kidea. Teknikari on batekin ari ginen grabatzen, eta diskoari oso itxura ona hartzen genion. Baina “munstrokeria” hau ez genuen inondik inora ere espero. Ez irratian eman den fenomeno, ezta Durangoko Azokan izan zuen oihartzuna ere.

N. Erromeria kutsuko taldea zarete. Baina diskoan kantu denak zuenak dira. Nolakoak dira Huntzaren zuzenekoak?

H. Hamabi kantu dira eta guztiak jotzen ditugu eta erromeri giroko beste bertsio batzuekin osatzen dugu errepertorioa.

N. Erromeria baino, kontzertu gisako saioa izango da Usurbilen eskainiko duzuen?



“Munstrokeria hau ez genuen inondik inora ere espero. Ez irratian eman den fenomeno, ezta Durangoko Azokan izan zuen oihartzuna ere”.

AITOR HUIZI (HUNTZA)

“Kontzertu formatuko saioak eskaintzen ditugu orain. Gure kantuak eta parranda giroko bertsio batzuk”

H. Diskoa grabatu aurretik erromeria luzeak egiten genituen, baina orain diskoa atera dugunetik, eta jendeak gure diskoa entzun nahi duen aldetik, kontzertu formatuko saioak ematen ditugu. Gure kantuak eta parranda giroko bertsio batzuk.

Larunbat honetan, Bizi Kalea musika eta gastronomia festa Otsailak 4, larunbata

■ 19:00-21:00 Bizi Kalea. Sagardotegiko pintxoak 2 eurotan (bakailu tortila, txorizoa eta saiheskia), edaria euro batean.

■ 21:00-21:30 Hurbilago Elkarteko saltokietan xahutzeko 150 euroko erosketa balearen eta tabernarien opariaren zozketa.

■ Borladun animaliak lantzeko tailerra antolatuko du Txirrinbolo dendak eta dron bat erabiltzeko aukera eskainiko du baita, eguraldi ona bada.

Kontzertuak

■ 20:00 The Hastelen’s.

■ 22:30 Huntza. Sarreraren salmenta: aurrez 5 eurotan salgai Usurbilgo tabernetan. Egunean bertan 6 eurotan.

■ 00:00 Zapparra.

Antolatzailea: Hurbilago. Babesleak: Usurbilgo Udala eta Eusko Jaurlaritza.

Gure Pakearen batzarrean zuzendaritza berri zuten



2016ko balantzeaz eta 2017ko egitasmoen aritu ziren.

Gure Pakea Elkarteko zuzendaritzaren erdia berri, 2016ko balantzea egin eta urte berriko egitasmoak jorratzeko urteroko batzar

nagusian bildu ziren Gure Pakeako bazkideak. Argazkia urtarrilaren 27an Artzabalen ospatu zuten batzarrean egin da.

Pagazpe, klubaren arteko txapelketaren finalean



Igandean jokatuko dute finala Amezketan, Aurrera Saiatz taldearen aurka.

Igandean, arratsaldeko 16:30-etik aurrera Amezketako frontoian: Aurrera Tolosa-Pagazpe. “Animatu herritarrak gure pilotariei babesa emateko eta an-

tolakuntza honi nahikoa dela esatera”. Aurreko astekoan zen jokatzeko berez, baina azken orduan aldatu zuten finalaren eguna.

SAGARRONDOTIK SAGARDORA

2017KO IKASTARO PRAKTIKOA USURBILEN

Otsailak 11:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA ETA ONGARRIKETA.

Aitor Etxeandia

Kimaketa
praktikak
bertako
sagastietan
egingo dira!

Martxoak 4:

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA, GAIKOTASUNAK ETA
TRATAMENDUAK. Aitor Etxeandia

Martxoak 11:

FRUITU ARBOLEN UDABERRIKO EDO ZOTZEKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Apirilak 1:

GARBITASUNA KALITATEAREN LAGUN. SAGARDOA EGURREZKO
ONTZIETAN ETA SAGARRONDOAREN BIZIMODUA.
Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

Apirilak 22:

ILARGIA ETA EGUTEGI BIODINAMIKOA

Xabier Akizu

Ekainak 3:

SAGASTIEN UDAKO KIMAKETA, GAITZAK ETA IZURRITEAK.

Aitor Etxeandia

Uztailak 15:

FRUITU ARBOLEN UDAKO EDO BEGIKO TXERTAKETA.

Josu Osa

Irailak 9:

SAGARRAREN HELDUTASUN ANALISIAK. ETXEAN SAGARDOA
EGITEKO HASTAPENAK. Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiain

IKASTAROEN ORDUTEGIA: 9.00etatik 13.00tara

LEKUA: Potxoenea Kultur Etxea (Usurbil)

Ikastaro osoaren prezioa: 96€ (Alkertasuna Kooperatibako bazkideek DOAN)
Egun solteetan izena ematea ere badago; jarri Alkertasuna
Kooperatibarekin harremanetan.

IZEN EMATEA: 943 36 11 14 alkertasuna@usurbil.com edo
www.alkertasuna.eus



20. Korrika girotzeko abiapuntuan

Apirilaren 4an helduko da 20. Korrika gure artetera. Gaueko 23:39an hartuko dugu lekukoa. Aurretik ohi bezala, euskararen aldeko lasterketa girotzeko ekimenak bideratu asmo dituelanean hastear den Korrika Batzordeak. Antolaketarako ekarpenak egitera animatzen gaituzte eragile eta herritarrei Etumeta AEK-ko irakasleek, hilaren 9an, 19:30etan euskaltegian bertan egingo den lehen batzarrean.

Hilaren 9rako deitu duzue lehen batzarra. Zer egin asmo duzue bertan?

AEK-ko irakasleak: Helburua biltzea da, Usurbilgo eragile eta herritar guztiei euskaltegia erortzeko deia egin eta datorren 20. Korrika dela eta, euskal kulturaren ikuspegitik zer egin dezakegun erabakitzeko ekarpenak biltzea. Korrika Kulturala deitzen diogun hori elkarlanean antolatzen hastea.

Zer motatako ekarpenak egin daitezke?

Korrika girotu eta laguntzeko ideia propioekin etorrita askoz hobe. Buruan dituzten ideiei, hemen forma emango diogu gero denon artean.

Korrika Kulturalaren baitan denetarikoa ekimenak antolatu izan dira aurreko edizioetan?

Gazte olinpiadak, mus txapelketa, bazkari edo afora, herriko musikariek parte hartu izan dute baita... Uste dugu potentziala badagoela Usurbilen. Ekarpentak egin nahi dituztenek, horiei forma emateko bilerak izango da.

Apirilaren 4an 23:39an helduko da 20. Korrika. Duela bi urteko ibilbide bera osatuko du herri barruan?

Lasarten hartuko dugu lekukoa, hipodromoko zubi in-



Antolaketarako ekarpenak egitera animatzen gaituzte eragile eta herritarrei Etumeta AEK-ko irakasleek; hilaren 9an osteguna, 19:30ean euskaltegian bertan egingo den lehen batzarrean.

KILOMETRO SALMENTA

“Erosketa egiteko epea irekia dago. Kilometro osoa edo erdia erosi daiteke. Eragileak, kultur taldeak edota enpresak izaten dira kilometroak erosten dituzten gehienak. Baina aukera bada baita, lagun artean erostekoak ere. Bildutako laguntza AEKra bideratuko da”

guruan. Zubietatik etorriko da. Santueneatik igaro eta Kale-zarrera igoko gara. Gero Puntapaxera eta handik Kaxkora jaitsi eta udaletxetik behera Aginaga alderako bidea hartuko dugu. Mapilen Oriokoei pasako diegu lekukoa. Guztira, 11 kilometro inguru.

Kilometroak erosteko zer aukera ditugu?

Erosketa egiteko epea irekia dago. Deitu euskaltegia. Kilometroaren prezioa aurreko edizioetako antzekoa izango da. Erdia egiten bada prezio er-

dian. Eragileak, kultur taldeak, enpresaren bat izaten dira kilometroak erosten dituzten gehienak. Baina aukera bada baita, lagun artean erostekoak ere. Bildutako laguntza AEKra bideratuko da.

Korrika laguntzeko aukera gehiago badira.

Materiala salgai dugu. Honez gain, Korrika Laguntzaile izateko aukera dago. 12 euroren truke, pina, txartela eta dendak katalogoa jasoko da. Deskontuak izan daitezke, Euskal Herriko hainbat komertzioetan erosketak egiterakoan. Etorri euskaltegia eta behar den informazioa eskainiko dugu.

Otsailaren 11n, urtemuga festa

Korrikak urtemuga festa ospatuko du.

Otsailaren 11n izango da Irungo Ficoban. Egun osoko agerpen eta ekitaldi desberdinak izango dira bazkaria barne, duela bi edizio Usurbilen egin zen moduan. Izena eman behar da aurrez.

Oraindik beharrezkoa den ekimen herritarra
Oraindik euskarak behar ditu Korrika bezalako egitasmoak?

AEK-ko irakasleak: Zorionez eta zoritxarrez. Zoritxarrez oraindik gure gizartean euskaraz bizitzea zenbait arloetan eta herrietan posible ez delako. Zorionez, Korrika ekimen guztiz herritarra delako eta aukera ematen baitigu kontzientzia hartzeko, herri hau kohesionatzeko, euskal kulturari bultzada bat emateko.

Ezagutzak nabarmen gora egin arren, erabileran eragin behar orain?

Azken urteotan, 20-30 urteotan hiztun kopurua bikoiztu den bezala, erabiltzaileena inondik ez da joan parametro horietan. Azken urteotako egin beharreko lanaren zati bat hor dago baita, kontzientzia hori piztea. Dakienak behintzat lehenengo aukera bezala euskara erabiltzea.

Besarkadak eta elkartasun mezuak, azken ostiraleko elkarretaratzean

U surbilen Nahi Ditugu bilguneak aurreko ostiralean Mikel Laboa plazan antolatutako elkarretaratzean Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta haien senideak bizitzen ari diren egoera bidegabea salatu eta elkartasuna adierazi zuten Usurbilgo herriak, idatzi zituzten mezu, gutun eta atera zituzten argazkien bidez.

“Ozen salatu nahi dugu, Madrilek eta Parisek daramaten mendekuzko espetze politika. Presoak ez ezik, haien senideak zigortzea helburu duena”, adierazi zuten elkarretaratzean zehar Usurbilen Nahi Ditugu bilgunetik. Olatzen ama Mari Karmen ospitaleratu dago Xua biloba jaio berria bisitatzerako joan eta gaizki sentitu ostean. Patxiri, Alacanten espeteratu, ez zieten baimendu alaba ezagutzea.

Eskutitz hunkigarria

Olatz eta Patxiren familiek egunotan bizi dutena ondo baino hobeto deskribatu du bestalde, Arantza Anzak, Olatz Lasagabasterren izebak egunotan Gara egunkarira igorri

Matrikulazioa zabalik ikastetxeetan

2017-18 ikasturterako aurrematrikulatzeko garaia da ikastetxeetan. Tramitazioa bidertatzeko epea zabalik izango da otsailaren 10era arte:

■ Udarregi Ikastola:

Gernika ibilbidea / 943 361 216 udarregi.eus

■ Aginagako Eskola Txikia: Erriberako Kalea 7, 09:30-16:30 artean/ 943 372 044

012261aa@hezkuntza.net aginaga.eskolatxikiak.org

■ Zubietako Eskola Txikia: Learritza 52, 943 372 931 012219aa@hezkuntza.net zubietako@eskolatxikiak.org www.zubietako.eskolatxikiak.org



Gutun eta argazki bidez, herritar askok beren elkartasuna adierazi zieten Olatzi, Patxiri, Xuari eta Mari Karmeni.

ARANTZA ANZA

“Dispertsioagatik izan ez balitz, Olatz, Patxi eta Xua Euskal Herrian egongo ziren, nire ahizpa Mari Karmen (Valentzian ospitaleratu) eta ni ere bai. Nere anaiek eta ilobek bisitatu ahalko lituzkete, baina 600 kilometrotara gaude”

duen gutunean. Gogorazten duenez, “dispertsioagatik izan ez balitz, Olatz, Patxi eta Xua (hilaren 19an jaio zen Valentzian), Euskal Herrian egongo ziren, nire ahizpa Mari Karmen (Valentzian ospitaleratu) eta ni baita, nere anaiek eta ilobek bisitatu ahalko lituzkete, baina 600 kilometrotara gaude”. Le-

rootatik eskerrak helarazten zizkien, “nire ahizpari bizitzako une zailtan behar izaten den berotasuna eman dieten eta ematen jarraitzen duzuen guztioi. Modu berezian, ia 8 urteotan laguntzeari utzi ez diezuen usurbildar guztioi”.

Sara Majarenasen espetze berean dago Olatz. Sara eta Izarren alde duela bi aste Donostian egindako elkarretaratzean, hiriburuko alkate Eneko Goiarengana hurbildu zen Arantza. Alderdien arteko zatiketa gairatu eta batzeko ordua zela adierazi zion, Arantzaren esanetan “gizatasuna guztiaren gainetik baitago”. Injustizien aurka altxatzeko deia egiten zuten, Xuarentzat halako mundurik ez duela nahi argudiatuz.

Erakusketa berria Artzabalén



“Mundu bat irribarrez: “Begiak irekita sentitzeko” Eñaut Aiarzagüena Bravo (1988, Iurreta) arte ederretan lizentziaturiko irudigilearen lan bilduma izan-

go da ikusgai Artzabalén otsailaren 28ra arte.

Iurretarraren lanketaren berri irribarrez.info atarian jaso dezakezue.

Eskubaloiko errifa zozketa

5.991 bat izan zen Usurbil Kirol Elkarteak urtarrilaren 28an egin zuen errifa zozketako zenbaki saritua. Patxi Arteaga izan da oraingoan onuraduna. Bi laguntzako otordua tokatu zaio Urdaira sagardotegian.



Urdairan bi laguntzako otordua tokatu zaio Patxi Arteagari.

Argia Sariak Atxega jauregian banatu zituzten

Hilaren 27an Atxega Jauregian ospatu zen ekitaldian egin zuten sari banaketa. Honatx aurtengo sarituak:

-Prensa idatzia: Ane Irabazal, errefuxiatuaren krisiaren inguruan eginiko lanagatik.

-Irratia: Oiartzun eta Antxeta irratien artean eginiko “Amapola Morea” irratsaioa.

-Ikus-entzunezkoa: Kanal-dute telebista kateko “Busti” umorezko saioa.

-Sustapen saria: “Egian bizi nahi dugulako” ekimena.

-Interneta: “Game Erauntsia” bideo-jokoaren euskal komunitatea.

-Merezimenduzko sari postumoa: Imanol Urbieta. Kontxi Aizarnak jaso zuen saria.



Saritutakoaren familia argazkia, aurreko ostiralean Atxegan.

“Amador, eskerrik asko Usurbil munduko mapan erakusteagatik”

Ibilbide oparoa izan du kirolari gisa, mundu mailako onenen artean lehia da eta sari mordoa irabazi ditu. Azkena, gogoan izango duzuen, irailean Rion (Brasil) ospatu ziren Paraolimpiar Jokoetan; brontzeko domina irabazi zuen. Usurbilgo Udalak eta igande goizean ospatu zen Irisasi BTT Hotzak Akabatzen kirol probako antolatzaileek, Amador Granados Alkorta omendu zuten egun berean.

Jose Luis Zumetaren sortze lan bat, Irisasi BTT taldekoen mailota, eta aurrekoa dantzatu zuten dantzarien lore sorta ederra jaso zituen usurbildarrek. Merezitako goraiemenekin batera noski.

Bere ibilbidea oso gertutik ezagutu duen Goio Martinen hitzak entzun genituen, eta baita Usurbilgo Udaleko alkate Xabier Arregirenak ere. “Amador, eskerrik asko Usurbil munduko mapan erakusteagatik eta eskerrik asko gu guztioi hain etsenplu ona emateagatik”, adierazi zion alkateak txirrindulariari.

Inklusibitatearen balioa

Granadosen ibilbidea nabarmendu nahi izan zuen alkateak: “Amadorren kasuan iruditzen zaigu garaipenak bezainbesteko balorea duela hona iristeko egindako ibilbideak. Ibilbide luzea, gogorra”, zioen Arregik. Gaineratu zuenez, “bere ibilbidea goraiatu



Irisasi BTT Hotzak Akabatzen kirol probako antolatzaileek eta Usurbilgo Udalak Amador Granados Alkorta omendu zuten.

LAN HANDIA EGINDAKOA

Jorratu duen bidea ez da batere erraza izan. “Inork ez dio ezer oparitu”, gogorarazi zuen Goio Martinek

nahi izan dugu, bere grina, ekimena, zailtasunei aurre egiteko adorea, etengabeko superazioa. Badakizue Usurbil inklusibitatearen herria dela, eta iruditzen zaigu Amadorren ibilbideak ezinhobeto jasotzen duela inklusibitatearen balioa”. Txikitan futbolari izan nahi zuen Amadorrek, baina ebakuntza-gela artean bizitzea tokatu zitzaion. Azkenean txirrindulari izaten amaitu du, “munduko erreferentzia izateraino”.

Sarritan, laguntza falta

Aldiz, ordura arte jorratu duen bidea ez da izan ibilbide erraza. “Inork ez dio ezer oparitu”, gogorarazi zuen Goio Marti-

nek. Gogor borrokatu behar eta sarritan laguntza falta izan du. Baina halere, palmarek bikaina osatu du.

Usurbil munduratzeko konpromisoa

Merezitako omenaldiaren amaieran protagonistak berak hartu zuen hitza. Amadorrek eskerrak eman zizkien omenaldiko antolatzaileei, senide, lagun eta herritarrei. “Plazer handia da hemen egotea”, zioen. Orain arte bezala aurrerantzean ere bera jarraitzeko deia egin eta gogorarazi zuen, doan lekura doala, hara eramango duela herri honen ize-na.

474 partaide Irisasi BTT Hotzak Akabatzen proban

Igandean ospatu zen, giro onean ospatu ere. Aurtengoan behintzat ez dira “hotzez akabatu” 474 partaideak. Tartean bazen usurbildarrik ere. Argazki ugari batu ditugu noaia.eus atariko Argazkitegian.

Futbol partidak

Haraneko zelaian

Otsailak 4 larunbata

- 09:30 Alebin neskek: Udarregi 6A-Udarregi 5
- 10:30 Infantil mutilak: Usurbil F.T.-Aralar Intxurre
- 12:00 Kadete mutilak: Usurbil F.T.-Kafeteria Orereta
- 15:30 Erregional mutilak: Usurbil F.T.-Iluari F.K. “B”

Eskubaloio partidak

Oiardo Kiroldegian

Otsailak 4 larunbata

- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6A-Udarregi 6D
- 10:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5A-Udarregi 5C
- 11:30 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Bera Bera
- 15:30 Kadete neskek, lagun artekoa: Usurbil K.E.-zehazteke
- 17:30 Kadete neskek, Gipuzkoako Txapelketako finala: Pulpo-Bera Bera
- 19:30 Senior mutilak, 1. nazionala: Ucin Aluminio Usurbil-Quiron Askartza

Otsailak 5 igandea

- 09:15 Alebin neskek, Gipuzkoako errendimenduko txapelketa: prestakuntza saioa.
- 10:15 Alebin mutilak, Gipuzkoako errendimenduko txapelketa: prestakuntza saioa.
- 11:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B Usurbil-Elgoibar Murgil

Pilota partidak

Otsailak 2 osteguna

- Aginagan, Pala Txapelketa 2. mailako partida.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Patricia
Patricia
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

ETXEBIZITZA

Salgai

90 m² pisua Nagusi kalean. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. Eguzkitsua, berritua. Informazio gehiago: 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, sarrera zabala, komun bat. Eguzkitsua, epela. Gela guztiak kanpoaldera, leihoarekin. Fatxada berritua, teitlata egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 eta 56) eta garajea 50m² eta terraza 9m². Igogailua, fatxada berritua. Oso argitsua, bista onak. 679002101

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

78m² pisua Atxegalden. 4 logela, 2 komun, sukalde, egongela, balkoi luzea, trasteroa. Igogailua. Eguzkitsua. 215.000 euro. 656742207

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trasteleku. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrik doakoak dira. Telefonoz edo emailz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.eus

Oharrik bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Sukalde irekia, esekilekia, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Xakoa kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelek posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen.

Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeok karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405.

Galtzarainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Suzuki Vitera salgai. Diesela. 1998. urtekoa. Korrea aldatu berria. 630 490 844.

Garaje bat saltzen dut Erdiko-kalea, 10 zenbakian. 2 kotxerentzat. 48.000 euro. 699 720 940

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Ar-

gutsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606 267 824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxe lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, ordukako lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzeko... 688 642 835 / 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen

naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeok zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketan, jantxek batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketa. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldean, irailtik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratza lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo ospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketa lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak

Zorionak Mikel! Otsailaren 4an hamabi urte beteko dituk, ondo ospatu eta muxu handi bat etxekoan partetik.

Zorionak Oier! Otsailaren 2an, 5 urte egingo dituzu. Muxu handi bat familia osoaren partez!!

Zorionak Eire! Muxu handi handi bat, Peru, Aitaxto eta Amatekoren partez.

Zorionak Nora! Otsailaren 3an 9 urte beteko dituzu. Ederki ospatuko dugu. Muxuak etxekoan partez...

Heriotzak

Manoli Amuchastegui Beristain Urtarrilaren 29an



Aniceto Irazabal Urquiaga

82 urterekin hil zen urtarrilaren 30ean



OHARRA: 2017ko otsailaren 10ean aterako dugu datorren astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: otsailak 6 astelehena, eguerdiko 11:00etan.

Emailz, helbide honetara igorri: erredakzioa@noaia.eus

zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrek zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrek arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrek zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatekxeren batean harraskako garbiketari egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari-tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituladuna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Lanpara bat topatu nuen Artzabal aldean, haizeak eramanda haize gogorreko egun batean. Zurea bada, deitu 675 712 383.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotzeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Baserrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoaalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat

aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzaintetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuak txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUAra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higienarako produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak alde-ra Oiardo Kiroldegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostik elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro pol-lar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrekoro edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 02 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 03 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 05 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasartete

Astelehena 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 07 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Otsailak 02 - otsailak 12

Osteguna 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 10 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 11 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda otsaila

02 osteguna

- **Kultura Aholku Batzordea.** 18:00etan Potxoenean.

04 larunbata

- **Herrizartuk deituriko batzarra** 12:00etan Batzar irekia Potxoenean. Arratsaldean, sinadura emateko mahaia frontoi inguruan.
- **Bizi Kalea** gastronomia eta musika festa frontoian (ikus 15. or). Antolatzailea: Hurbilago.

05 igandea

- **Maiatzaren 7ko galdeketa babesteko argazki erraldoia.** 13:00ean Dema Plazan.
- **Haurrentzako 1. Xake Txapelketa,** 16:00-19:00 Usurbilgo Gaztetxean.
- **Haurrentzako zinea:** "Iratxoen erregea". 17:00etan Sutegin.

Igandean, herri galdeketaren aldeko argazki erraldoia

Maiatzaren 7ko herri galdeketari begirako hitzordu ugari izango ditugu asteburuan. Honatx datozen deialdiak:

Otsailak 4, larunbata

12:00 Batzar irekia Potxoenean. Arratsaldean, galdeketa babesteko sinatzeko mahaia frontoi inguruan.

Otsailak 5, igandea

13:00 Maiatzaren 7ko galdeketa babesteko argazki erraldoia Dema plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

Selfie kanpaina:

Oraindik martxan da. Selfie-ak whatsapppe

"Iratxoen erregea", igandean zinea Sutegin

Usurbilgo Udalak Ziortza Gazte Elkartearen laguntzaz negu parterako antolaturiko euskarazko zine zikloaren baitako proiektioa izango da igandean, otsailak 5, arratsaldeko 17:00etan hasita Sutegiko auditorioan. Sarrerak egunean bertan izango dira salgai, 3 eurotan.



Igandean, eguerdiko 13:00ean Dema plazan batzeko deia egin dute. Euria egingo balu, frontoian egingo litzateke argazkia.

bidali 634 44 55 12 telefono zenbakira.

Informazio gehiago:

Facebook: Gure Esku Dago Usurbil
Twitter: @GureEskuDagoU
E-posta: usurbilgureeskudago@gmail.com

Haurrentzako Xake Txapelketako partida

Aurreko astean hasi zen Haurrentzako Lehen Xake Txapelketa. Bigarren saioa igande honetan izango da, 16:00-19:00 artean Usurbilgo Gaztetxean. 12 urtetik beherako haurrei zuzendua dago. Informazio gehiagorako: 658 997 828 (Erik)/erikjuez@gmail.com

Datozenak

Oriaren 23. Traineru Jaitsiera

Neguko estropada garrantzitsuenak jokatu da otsailaren 11n larunbatarekin: Oriaren Traineru Jaitsiera. 16:00etatik 18:00etara.



6.000 metroko estropada Mapildik abiatuko da. 4.000 metrokoa, Saikolatik.

Ingurumenaren aldeko Inauteri Festa

Ingurumena dugu otsailaren 25ean ospatuko dugun Inauteri Festarako gaia. Hiru aste baino ez dituzue prestaketa lanetarako. Txaranga, dj-a, Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira edota kantu-jira izango ditugu otsaileko azken larunbatean. Bezperan, Udarregi Ikastolak Oiarde Kiroldegian antolatu duen inauterietako ikuskizuneko ardatza ere ingurumena izango da; "Zaborra ere gurekin dantzan" dantza eta musika uztartzen dituen emanaldirako hautatu duten aldarria.

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ARRANDEGIA PELLO
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Erabakitzeke Eskubidea eta
maiatzaren 7ko Herri Galdeketa babesteko

Argazki Erraldoia

USURBILGO DEMA PLAZAN
OTSAILAK 5, IGANDEA - 13:00

*Errepikatuko al dugu ordukoa?
Zure esku dago!*





Udarregi

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskaintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- **KiVa Ikastola gara:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean dugu 2017ko urtarriletik aurrera beste 51 ikastolekin batera.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

49 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)
Urtarrilaren 30etik otsailaren 10era (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus